



PAILAZOAK. Diskoan hango haur kantak eta herri abestiak bildu dituzte, Nikaraguan egon zirenean ikasitakoak



Pirritx, Porrotx eta Takolo pailazoak, *Aupa Kintxo!* euren azken proiektuan.

Takolo, Pirritx eta Porrotx kintxoen alde

Nikaraguako hainbat haurrentzako eskola eraikitzea da 'Aupa Kintxo!'-ren xedea

Ainara Gorostizu | DONOSTIA

«Kintxo haur bat da, eta familia bat, lagunak eta izaera eta historia propioak ditu. Baina, era berean, Kintxo Nikaraguako

edo mundu osoko edozein haur langile izan daiteke, bere bizibaldintza kaskarrekin lan egitera behartzen duten haurra». Kintxo Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldeak ikasturte hone-

tarako prestatu dituzten egitasmo guztietako protagonista da. Haur horiek eskola ugari zituzten lehen, baina sandinistek boterea galtzarekin zentro ugari desagertu ziren. Somoton zenbait euskal herritarren laguntza eraiki zen aterpetxe bat, baina, oraindik zutik dagoen arren, «txiki gelditu da», Joxemari Agirretxe *Porrotx* pailazoaren esanetan.

Takolo, Pirritx eta Porrotx lasartear pailazoek, *Honek* deituriko gobernuz kanpoko erakundearen bitartez, aurtengo otsailan jakin zuten Nikaraguako haur hauen egoeraren berri, eta, han bederatzi emanaldi eskaintzeaz gain, hango haurrek eta artistek irakatsiriko dantza

eta abesti ugari ekarri dituzte Euskal Herrira. Horietako zenbait dira *Aupa Kintxo!* diskoan bildu dituztenak.

Porrotxen esanetan, «proiektuaren helburua euskal haurrek haien kultura eta kanta aberatsak ezagutu ahal izatea da, diruz pobreagoak diren arren dantza eta kantuen aldetik oso aberatsa baita haien kultura», eta diskoaren salmentan bildutako diruarekin kintxoentzako eskola eraikitzen lagundu ahal izango dute.

Kintxoen aldeko proiektuaren barruan, 15 abestiz osaturiko diskoaz gain, ipuin bat ere kaleratu dute; bertan kontatzen dute Nikaraguan ikusitakoaren berri. Hori ikastetxeetan dohainik emango dute. Hamar minutu inguru irauten duen bideo didaktiko bat ere badakarte proiektuaren barruan, eta abenduan hasi eta datorren urteko ikuskizun guztiak kintxoen eskolaren alde egingo dituzte.

Nikaraguarrik irakasle

Hamabost abestik osatzen dute diskoa: «Gure emanaldiak amaitu ondoren, mikrofonoak uzten genizkien, umeek euren kantak eskaini zituzten». Ikusizunean eskaintzen duten Atximur jolasa, esaterako, Somotoko haurrengandik jaso zuten. *Titu* deiturikoa, berriz, Telpanecako emanaldi baten ondoren, bertako emakume batek erakutsi zien.

«Disko honetako ikurra Kintxo Barrilete pertsonaia da», eta hori Carlos Mejia Godoyri «zor» diote pailazoek; «hori da



Proiektua: *Aupa Kintxo!* kintxoen alde 15 kantuz osatutako diskoa (Nikaraguako hainbat haur kantu barne), hamar minutuko bideo didaktikoa eta pailazoek Nikaraguan ikusitakoari buruzko ipuina.

Egileak: Takolo, Pirritx eta Porrotx.

Disketxea: Matxinsalto

disko honetako abestirik garrantzitsuena, hori hartu baitugu ardatz». Diskoan, haurrentzako abestiez gain, herri kantu ugari ere bildu dituzte.

Diskoan entzun daitekeen *Atxis* abestia, berriz, Ozeano Bareko hondartza batean ume talde batekin jolasean ari zirela ikasi zuten. Euren irakasle guztiak, ordea, ez ziren hain gazteak, bertako artistak ere izan baitzituzten irakasle.

Mario Montenegro umeentzako kantugilearekin bilera egin zuten euskal pailazoek Managuan. Bertara Guachipilin txotxongilo taldea eta beste hainbat pailazo talde ere bildu ziren. Montenegrok eginiko bost abesti sartu dituzte diskoan.

Urte osorako proiektua da eta dagoeneko datorren urteko maiatzera begira jarri dira, Guachipilin txotxongilo taldea ekarri nahi baitute Euskal Herrira.

INTXAURRE
HERRIKO TABERNA
EUSKAL PRESOK ETA IHESLARIAK
ETKERA
DURANGO

Durangora bidean, liburu nabarren uzta

EUSKAL DENDA
6. ARTISAUTZA AZOKA
ABENDUAREN 6-9 DURANGOKO AZOKA PLAZAN
9:00-15:00 ARRATSALDEZ, 16:30-21:00
2002KO EGUTEGI BAT OPARITUKO DIZUGU ZURE GOGOAN IZAN GAITEZEN.
GURE ARTISAUTZAREKIN DUZUN ZITA!

ESKULAN TAILERRAK HAURRENTZAT
ABARRAK EGIN AHAL IZANEN DITUZU, 90ZKIAK, LARRUZKO ESKUMUTURREKOAK, ESKUZ JOKATZEKO PILOTAK, PAPER MARMOREATUA, TAPIZAK...

LANBIDEEN ERAKUSTALDIAK
EUSKAL HERRIKO ESKULANZILERIK 9ENAK LANEAN NOLA ARITZEN DIREN IKUSIKO DUZU.
ZAHATZAK, HARRI ETA ZUR LANTZEA, TIFFANY BEIRA, FRONTOIKO XISTERAK, ZUR TORNEATZEA, BUZTIN LANAK, 90ZKIAK...

EROS-TXARTELAK ETA OPARIAK ZOTZ EGINGO DIRA, 500.000 PEZETA BAINO GEHIAZKORAK.

BISITARIEK AZOKAKO ERAKUSMAHAIRIK 9ENAK AUKERATUKO DUTE, ETA DURANGALDEKO LANDETXE BATEAN ASTEBURUA PASATZEKO 990NALDIA ZOTZ EGINGO DA BOTOA EMATEN DUTENEN ARTEAN.

ITSASOKO LANBIDEEN 9AINEKO MONOGRAFIKOA
SAREZINTZA ETA SARE KONPOKETA, MARINELEN KORAPILAK, BARKUEN MAKETA, AMU LOTZEA...
ABENDUAK 8 LARUNBATA: SARDINA JATE HERRIKOIA.

150 PEZETAKO LAGUNTZA

Euskadi (Basque Country logo)
DURANGO (City logo)
Egunkaria (Newspaper logo)

Bizkaiko Foru Aldundia | Diputación Foral de Bizkaia
Euzko Legebiltzaria | Departamento de Promoción Económica